

Kazetari handia

KIRIKIÑO EZIZENEZ, EBARISTO BUSTINTZA izenez. Zientzia-gizona zen ikasketa eta lanbidez, baina euskal kulturaren barruan hainbat arlotan jardun zuen, eta letretan ere hainbat eta hainbat lan egin zituen. Bizi zela liburu bat baino ez zuen argitaratu, eta bera ez oso lodia. Aldizkarietan, oster, era askotako gaien gaineko artikulua asko eta asko idatzi zituen.

Herritarren artean harrera ona ere ona zuen, neurri handi baten herriko gorabeherak, ipuinak, pasadizoak eta antzekoak kontatzen zituelako, eta ez edozelan kontatu ere, bizi-bizi, gatz-piperrez ondo hornituta baino. Horrez gainera, herritarrak euskaraz egiten eta idazten bultzatu zituen.

Idatziak eta idazkera

Kirikiñok gai asko erabili zituen, euskara, euskal kultura, Euskal Herriarekin zerikusia dutenak asko, baina baita bestelakoak ere. Halakoen artean Lehen Mundu Gerrari buruz *Euzkadi* egunkarian idatzitako kronikak nabarmenduko ditugu; *Guda Nagusia 1914-1918* (Labayru Ikastegia, Bilbao, 1989) izenarekin argitaratu ziren denak liburu baten batuta. Idatzi horietan gai horren gaineko berri ondo zekiela erakutsi ez ezik, kazetaritza estilo bat sortu ere egin zuen euskaraz. Gehienetan Kirikiño ipuin edo kontu labor-barregarriekin baino ez da lotu izan, baina kazetari alderdiari gehiago erreparatzea komeniko litzateke.

Idatziak bere aldiko aldizkarietan argitaratu zituen: *Euskalzale*, *Ibaizabal*, *Euzkadi*... Baina orain liburuetan batuta, eskura dauzkagu horietariko asko, ez denak, ordea, oraindik beste horrenbeste edo gehiago argitaratu barik daude eta.

Lehenengo edizioak *Abarrak* (Grijelmoren etxean, Bilbao, 1918) eta *Bigarrenengo Abarrak* (Euzko Pizkundea, Zornotza, 1930) izan ziren. *Abarrak... eta abar* (Gráficas Bilbao, Bilbao, 1966) geroago etorri zen, eta haren atzetik *Egunekoa* (Labayru Ikastegia, Bilbao, 1981), *Edo geuk edo inork ez. Euskeraren alde* (Labayru Ikastegia, Bilbao, 1984) eta *Guda Nagusia 1914-1918* (Labayru Ikastegia, Bilbao, 1989).

Kirikiñok era guztietako gaien gainean idatzi zuen: pasadizo barregarriak, herri-ipuinak, eguneko gaiak, euskal ohiturak, kanpoko berriak...

Generoetan ere, gehien-gehien kontara laborrak idatzi zituen, baina baita olerki eta bertso batzuk ere, eta antzerkiak. Halakoak kopuruz ere gutxiago dira, baina askoz ezezagunagoak ditugu gaur egun.

Idazkera aldetik, bizia da, argia, zolia, herriko hizkerara hurreratu gura; ematen du beti daukala irakurlea gogoan eta idatzian bertan sartu nahi duela. Narrazioetan baino elkarriketetan biziago ageri da, hor hobeto sartzen dituelako herri hizkeraren ezaugarriak.

Kirikiño euskara garbiaren garaikoa da, baina berak ez zuen bide hori egoki ikusten euskaldunentzat idatziz gero. Bere garaikide gehienek literaturarako bide garbizaleari heldu bazioten ere, berak gogor eutsi zion bereari, orduko irakurleentzat idazten zuela esanez, eta ez handik ehun urterakoentzat.

Kirikiñoren garaia eta ondorena

Kirikiñok asko idatzi zuen, baina giroak ere lagunduko zion segurutik. Aurreko mendearen azken aldian hasita, eta mende honen lehenengo urteetan batez ere, abertzaleak euskara euskal-

tasunaren ezaugarri bereizgarritzat hartuta zebiltzan. Politikako giro beroa kulturaren islatzen zen: euskarazko aldizkariak, argitalpenak orokorrean, eskolak, lehiaketak, euskal jaiak... asko ugaritu ziren. Ez dago emaitza ikustea besterik, gerra aurreko urteetako euskal literatura oparo eta onenetakoa da gure literaturaren historian.

Giro horretan kokatu behar da Kirikiño ere, egile eta eragile moduan. Berak idatzi ez ezik, beste batzuk idaztera bultzatu zituen; euskara eta euskal giroari kutsu txarra kendu eta norberaren izakeraz harro egoten erakutsi zien herritar askori.

Kultura eta gizarte arloko jende askorekin harremana izan bazuen ere, bat nabarmentzen da denen artean, Resurrección Maria Azkue. Azkue Kirikiñoren bizitzako une garrantzitsuetan ageri da haren jarraibidean ziri-ka. Azkuek ez zuen gauza onik izan Kirikiño Sigüenzatik Euskal Herrira ekarri arte. Arrebaren senartzat nahi izan omen zuen Azkuek Kirikiño, baina ez zuen lortu. Berak bideratu zuen *Euskalzale* eta *Ibaizabal* aldizkarietara ere. Euskaltzaindian sartzeko ahaleginak egin zituen, baina Kirikiñok ez zuen akademiaren erabakiak betetzeko gogorik erakutsi urtean. Eta aldizkarietan, hau da, agerian izandako eztabaida batzuetan erakutsitako jarre-
rak ez omen zion lagundu akademian sartzeko.

Idazle ez ezik, irakasle ere badugu Kirikiño. Irakasle zentzu bitan, gainera. 24 urte eman zituen euskara irakasten Bilbon, hainbat jende igaro zan haren eskoletatik. Baina beste idazle batzuek ere irakasletzat aitortu zuten, Bernardo M. Garro *Otxolua*-k kasurako. Hiltzean, Orixek, Otxoluak, Lizardik eta beste idazle handi askok idatzi hunkigarriak argitaratu zituzten haren omen eta oroimenez. Harrezkero hainbat omenaldi eta gorai-pamen egin zaio, eta idazlanak, batzuk behintzat, argitaratu dira. Gaur egun Bizkaiko hizkuntzaz eta literaturaz ezer jakin nahi duenak ere derrigorra du haren lanak esku artean erabiltzea. Eta, bestela ere, irakurtzen une gozotat ematea beste helbururik ez duen irakurleak ere, aurkituko du zer gozatu Kirikiñoren idazlanetan.

• Igone Etxebarria Zamalloa •



1866 ♦ Mañarian, Bizkaian, jaio zen, urriaren 26an, Etxanoa etxean.

1878 ♦ Almansara (Albacete) aldatu zen familia osoarekin.

1891 ♦ Fisika eta Matematikako ikasketak amaitu zituen Madril.

1899 ♦ Bilbora itzuli zen, ikasketak amaituta Sigüenzan irakasle ibili ondoren.

1899 ♦ *Euskalzale* aldizkarian lehenengo idatzia argitaratu zuen, Azkuek horretara bultzatu eta bideratuta.

1902-03 ♦ *Ibaizabal* aldizkari zuzendaria izan zen.

1909 ♦ Basili Bustintza Ozerio loba eta Mañariko Errose Bustintzaren ahizpa zenarekin ezkondu zen.

1913-28 ♦ *Euzkadi* egunkari *Euskal Atala*-ren zuzendari egon zen.

1918 ♦ *Abarrak* liburua argitaratu zen, ordura arte aldizkarietan idatzitako artikulua eta kontakizunak batuta.

1928 ♦ Lanetik erretiratuta, Mañarira itzuli zen.

1929 ♦ Urtarrilaren 31n hil zen, Zumelaga etxean.

1930 ♦ *Bigarrenengo Abarrak* liburua argitaratu zuten.

1932 ♦ Jaioterrian omenaldia egin zioten, eta jaio eta hil zeneko etxeetan, Etxanoa eta Zumelaga etxeetan, plaka bana jarri zuten haren omenez.

1966 ♦ Mañariko herriak beste omenaldi bat egin zion, eta aita Santi Oñaindiaren ardurapean, *Abarrak... eta abar* argitaratu zen. Liburu honetan aurretik argitaratutako biak eta beste idatzi batzuk batu zituzten.